




Konta Kontari


URTAROAK ETA HILABETEAK



LEHEN HEZKUNTZA

URTARRILA

Urtarila da urteko lehen hilabetea. Hotz egiten du, negua da. Egun hauetan berokia, txanoa eta eskularruak beharrezkoak dira. Bufanda ere ez ahaztu. Egunak laburrak dira, gauak berriz luzeak. Zuhaitzak biluzik daude eta animaliak kobazuloetan lotan diardute.




OTSAILA



Otsailean basoa isilik dago, mendiak zuritu egin dira. Elurrak dena hoztu du. Zein hilabete aproposa elurrarekin jolasteko! Baina dena ez da zuria, mimosen lore horiak zelaiak eta hiriak alaitzen dituzte. Laster beste zuhaitz asko ere esnatuko dira.

MARTXOA

Martxoan, elurra badoa pixkanaka-pixkanaka. Basoa esnatzen dijoa eta animaliek kobazuloak uzten dituzte. Zuhaitz batzuen lehen hostoak ikus ditzakegu, baita lore txiki batzuk ere. Negua bukatu da eta udaberriaren hasierak pozten gaitu.




APIRILA

Apirilan zuhaitzen hostoak jaio eta zelaiak eta hiriak kolorez betzen dira. Eguzkia agerian bada ere, oraindik ez ditu egunak gehiegi berotzen. Euria egiten badu, aterkia hartu, botak jarri eta segi kalera potxingoetan jolastera.

MAIATZA

Maitzan egunak asko luzatu dira. Hamaika koloretako lore jaio dira eta txoritxoak kantuan daude. Mendiak eta hiriak berdez jantzi dira. Zein idea hona mendira hurbiltzea paseotxo polit bat egitera. Zortea baduzu, animalia jaioberriak ikusiko dituzu. Animatu zaitez!



EKAINA

Ekaina etorri da eta egunak ez dira gehiago luzatuko. Baina eguzkia zeruan dagoenez, gero eta bero gehiago egiten du. Eskola bukatu da eta uda hasi da.



UZTAILA

Bai polita uztaila, jendea kalean dabil. Galtza motzak eta eguzkitako txapela atera armairutik, beharko dituzu eta. Baratzeetan, koloretako fruta eta barazki pila dago. Mmmm... ze honak daude sagarrak eta udareak! Baita sandia eta meloia, ur asko dute eta gozo-gozoak dira.




Konta Kontari

ABUZTUA

Abuztua, hondartzara joateko hilabete aproposa! Bero egiten du, ez ahaztu beharrezkoa dela eguzki-krema ematea. Itsasoko ura epel-epela dago. Bai dibertigarria igerilekuan lagun berriekin jolasean.

IRAILA

Iraila hasi da. Eskolako lehen egunak. Lagunak ikusiko dituzu berriro eta agian, maisu edo maistra berria ezagutuko duzu. Uda bukatu eta udazkena hasi da.



URRIA

Urrian eguzkia da zeruan, baina gero eta gutxiago berotzen du. Zuhaitzen hostoak kolorez aldatzen dira: marroiak, laranjarek, gorriak edo horia, denak ere politak. Hostoak lurrera erori baino lehen, urteko azken fruituak jaioko dira.





AZAROA

Azaroan gaztaina erreek gorputza berotzen digute, hasi da hotza jada. Eguna gero eta motzagoa izan arren, oraindik gauza asko egiteko garaia da: intxaurrak bilatu, hostoak bildu, parkean jolastu edo potxingoetan saltoka ibili.



ABENDUA



Abendua da, gabon kantak eta barreak entzuten dira. Etxean goxo goxo egon gaitezke, musika alaia entzuten, ipuinak irakutzen edo sukaldean laguntzen... Kalean hotz egiten du. Negua itzuli da eta urtea badoa. Hilabete honetan urteko gaurik luzeena izaten da. Horrela, egunak luzatzen hasiko dira eta urtea berriro hasiko da.